



TAMPOPO

ALBERTO BARANDIARAN

Ez dira asko gastronomia ardatz duten film ez espezializatuak, eta zaila da harribitxi japoniar hau sailkatzea azken horien artean, ez baita jatearen plazerez arduratzen den filma, edo eskualde bateko gastronomia laudatzen duen dokumentala, edo jateko ohituraz ari den lan autobiografikoa. Hori guztia bada *Tampopo* (1985) hau, bai, baina hori guztia baino gehiago ere bada: western klasiko bat, esaterako. Baina, batez ere, gai unibertsala proposatzen digu filmak, erreze-ta definitiboaren bilaketaren narrazio nagusiaren artean: barneko bidearen garrantzia, hain zuzen ere.

Horixe baita gidioa gidatzen duen hari nagusia: emakume bakarti bat hirugarren mailako jatetxe batean, hiri erraldoiaren auzo apartatuan, semea hezi nahian. Inguruan, Japoniako mafiako matoiak; gelditu, zeozer jan eta ia hitzik egin gabe bideari berriz ekiten dioten garraiolari bakartiak; bigarren aldiz errepikatzen ez duten bezero txiroak: etorkizun latza. Ekaitz baten erdian kamioi bat jatetxearen atarian geratzen denean, orduan hasiko da bi protagonistek konpartituko duten proiektua: nola lortu inguruko *ramen*-ik onenak egitea eta, jakina, etorkizuna ziurtatzea.

Filmean zehar, horrela, helburu hori erdiesteko behar diren elementu guztiak ageriko dira, enpresa epiko

Plater arteko minak



guztietan bezala: bapateko lorpenak eta porrotak; nekeak; etsipen uneak; maitasunak eta maitemina. Baina, tartekatuta, zuzendariak hainbat gai iradokitzen dizkio ikusleari, eta bat nagusi: tradizioaren eta modernitatearen arteko talka. Bitxiak dira, esaterako, sukaldaritza frantsesari egiten zaizkion erreferentziak: ironiaren bi-

dez, mihi arraina *meunière* erara edo txanpaina eskatzea jartzen da goimailako gustuaren gailurtzat baina, era berean, erridikulizatzen da kanpoko guztia gorestekoa tema: "Frantziako sukaldaritza sutegien kontrako etengabeko borroka da", dio pertsonaie-tako batek.

Garbi dago Juzo Itami zuzenda-

riak 70eko hamarkadan hain famatuak egin ziren *spaghetti westerns*-ak buruan zituela *Tampopo* filmaren gidioa taxutu zuenean, baina, tartekatuta, hainbat esketx proposatzen dizkigu filmak, trama nagusiarekin lotura ez izan arren haren atzean dagoen helburu narratiboarekin bat egiten dutenak: *Yazuka* talde mafiosoko kide

baten eta bere amorantearen arteko eszena erotikoa, esaterako (*9½ Weeks* gogoratzen digutenak); ondo eta egoki jateko hainbat neskakilak jasotzen duten ikastaro baten amaiera etsigarria, bestalde; gizon edadetua-zen eta gaztearen arteko solasaldi ia inizatikoa janari plater baten aurrean, azkenik.

Eta beharbada amaiera aldean dago, eszena bitxi eta errealista batean, zuzendariak proposatu nahi duen estetika guztiaren laburpena. Mafioso gaztea, txuriz jantzita goitik behera pelikula osoan bezala, tirokatuta erori da hiriko kale batean. Maitalea hurbildu zaionean, etsiturik eta korrika, zinemaren bukaera handinahi guztien osagaiak dauzka dekoratuak: euriarekin nahasten diren malkoak; odolaz gorritutako jantzi zuriak; maitalearen etsipena; betiereko promesak. Orduan, gizonak esan dio bere azken ametsa zein den: neguan, tuberkuluak jaten dituzten basa txerri horietako baten hestea soia eta errefautxo minez tartekatuta saltxitxa baten moduan dastatzea, txingarren artean erre ondoren. Neskak baietz esan dio, goxoak egongo direla, eta elkarrekin jango dituztela... baina orduan gazteak moztu dio: "Ixo, nire azken filma hastera doa" esan dio, hil baino lehentxeago.

Bukaeran, jakina, jatetxeak ospea lortuko du eta *cowboy*-ak bere bideari jarraituko dio, errepidetik gora, burdin-nezko zaldi gainean.

fundación **sgae**

con nuestro cine

Ayudas a socios y socias de SGAE
Premio SGAE de Guion Julio Alejandro
Premio Dunia Ayaso
Laboratorios de Escritura de Guion de Cine
Laboratorios de Creación de Series de TV
SGAE en Corto
Sala Berlanga
Conecta FICTION & ENTERTAINMENT
Talleres y seminarios
Concurso de cortos Versión Española/SGAE
Colaboraciones: Festival de Cine de San Sebastián, Sitges-Festival Internacional de Cinema Fantàstic de Catalunya, ECAM, ESCAC, RTVE, RNE, Academia de las Artes y las Ciencias Cinematográficas, Academia de Televisión
Y mucho más...

70 SSIFF Colaborador

división audiovisual | **sgae**